


Poesia

AMAIA ITURBIDE

*Dorrearen eta penduluaren
arteko ituna*



erein

DORREAREN
ETA PENDULUAREN
ARTEKO ITUNA

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. argitalpena: 2016ko azaroan

Azalaren diseinua:

Iturri

Azaleko irudia:

Amaia Iturbide

Maketazioa:

Erein

© Amaia Iturbide

© EREIN. Donostia 2016

ISBN: 978-84-9109-162-2

L. G.: SS-1172/2016

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: edizioak@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Amaia Iturbide

DORREAREN
ETA PENDULUAREN
ARTEKO ITUNA



URRATS NOMADEZ ETA ISOLATUEZ

MOSAIKO

Ur itzalezatuaren pean izarak azpiltzen diren moduan
egon nintzaion azulejuz estalitako gainazal hari begira.
Joko piezak lekualdatzen ziren heinean
aldatuz nindoan:
zoriak etengabe nahasten dituen kartetariko bat nintzen
eta neure urratsak eta begiak
ibilitakoaren eraikuntzako materialak ziren.
Hainbeste sartu ondoren,
zurrumbilo eta oihartzunetan galdu nintzen.
Begirada eskuizkribu haietan gelditu zitzaidan
eta mundua aliterazioz zein paralelismoz bezala
ausentziaz zein eskalaz ere
ulertzeko joera txertatu.

Esku artean izar bat edukitzeko
mosaiko puska batera
hurbildu baino ez duzu egin beharko.

SABAI BATEN BILA

Esku ahur zapalak bezalako hostoak
dauzka pikondoak.

Hosto horietariko batean jartzen dut arreta.
Berdeak eta grisak bat eginda,
hondoa daukan forma da
guztira hedatu eta bere magalean onartzen duena,
osotasunari begira, berriz,
bide alternatiboak bilatzeari buruzko
alegoria irudikatzen duen
fresko barrokoa dirudi, lurrin gozoa dariona.

Hodeia bezala nora ezean doan
hosto eroriari eutsi diot,
dudan berme bakarra baita
uhin apurtuaren itxurako nire urratsa den bezala.

Eta pikondoa gogoan,
adarretatik ibiltzen hasi naiz
horrelako etxe zabal bat eraiki nahirik.

BERTSO GALDUEN ARTEAN

Erraria azkenean goiz aldera esku batzuekin topatu zen.
Zorupeko loreak ziren eta
harriaren argia zein iturriaren sua altxatzen zituzten.
Bihotzetik zerion
txori ilun bana oparitu zien
eta, horrela, bera ere hegoak hartzen hasi zen.

Eguerdi betean ezpain batzuk ediren zituen
nekeak pikatuta eta piltzarrak zerizkienak,
orduan jabetu zen
ahots kraskatua paperetik paperera zihoakiola.

Gau beranduan begi batzuk aurkitu zituen
zakatzak bezalakoak
begiradan soka zeramatenak.
Begi horietako leiho bikoiztuetan
pospolo bana jarri zuen
jadanik uherra zeukan ikusmenerako.

Bidearen amaieran hanka batzuk antzeman zituen
zuhaitz enborren inguruan
argizariarenak bezalako ke eraztunekin.
Hantxe zeuden irudikatuta bere urratsak
urmael hondoko lainoan edo
koadro abstraktu bateko adar nahasietan katigatuta
hainbeste gauzatatik kargugabetuta,
sasoiz kanpoko landareak baitziren.

ARTZAIN IZANDAKOA HIRIAN

Oraindik ere eskuak ogi-espalak bailiran jartzen ditu
zura lantzen egongo balitz bezala,
oraindik ere begi ninietan sagar-tximeletak
loratzen zaizkio.
Atorraren usoa darama.

Begitartearen eskola pitzatu,
lotsa orbana aienatu
eta hazpegi hieratikoak mugitzen hasten zaizkio.
Biziki zainduko ditu,
bidegurutzea eta galbahea bezala.

Hiria izarrik anonimoena da berarentzat.
Hara heldu arteko bidean
hainbat gainazal larrutu igaro behar izan ditu
eta horrela begirada maskurtu zaio.
Hala ere, babesak izango ditu:
itsaslabarraren hegalarena
edota zilbor-hestea bezalako txirikorda
egiten ari den ibaiarena.

Baina, batez ere, isiltasunaren hezurra eta giharra
edukiko ditu gidari,
baskula berean jarrita eduki ere,
eta baita eguneko maindirearen eta
gaueko harriaren arteko ituna,
ate blindatu beste leiho zabal dauzkana.

Ahal duenean asfaltoa luberritzeari ekingo dio,
berak bakarrik dakien moduan.

JUBILATUEN BEGIETAN

Atzerriraino joan behar da ahoa
hobi komuna izateko,
atzerriraino bihotza
lurrikarak astindutako lastozko etxe bihur dadin
eta zarakarra jaio dakion,
atzerriraino irribarrea
trenaren gurpiletan nahasitako zarpail multzoa izan
eta, hala ere, ingurune osoa
antzaldatzeko gaitasuna edukitzeko,
atzerriraino negarra esmerilatua gerta dadin.
Atzerriraino joan behar dute eskuek
zerbitzuz kanpo aritzen jarraitzea
zer den ezagutzeko,
atzerriraino urratsek
zorupe izoztuaren gainean
ibiltzen ikasteko.
Gauzok irakur daitezke jubilatuen begietan
estanko-konpartimentuetan.

Jubilatuen begiak lurrean zehar sakabanatuta daude
lurra jo duten hainbat igogailu isolatutan.
Plankton multzoen gisara begiratzen digute.

GAUZA TUAREG BATZUK

Jaima, aldean eraman daitekeen
egitasmo bat edukitzeko.
Belo, gardentasunen arteko itzalez ohartu,
mundua iragarri bezala atalez atal antzeman
eta begi bistakoa ez ikusteko.
Eta hareaz eginiko anbulantzia-bihotza,
bikoiztutako ezerezaz hausnartzeko.

NILOKO HARANA

Jantzi aldagarri garbian eta amets goxoan dago
zeruko lorea,
aire zabaleko eremu harresiztatuan, berriz,
mikroklima.

Basamortuaren eta uraren arteko sinbiosian
egurats belarkara
(padura eta Osirisen bilbadura)
eta egurats berunkara
(ingudearen uhin konnotatiboa
uztail gorrailaren bolumena).

Hegazti hegoaren eta
ibai ertzaren arteko kontrapuntuan, berriz,
lumaren eta paperaren arteko transakzioa.

Ibaiaren gainazal orraztuan eta haztakatuan
lurrari urratu bat emandakoan bezala
uztak eta egutegiak ikus daitezke.
Eta igarri sikomorozko kaxaren ukendu luzea
eta iragarri papiro hieratikoetan zein lore hosto berdeetan
bildutako ostraken bermea.

Diapositiba emanaldia eta
erakusketa ibiltaria ere begien aurrean daude.
Angeluetan arin,
argi baltsamatua
errealitate birtualean nabigatzen ari da
iragaitzazko bidaiaria izan zaitezten.

Niloko harana ohi bezala
hain atze-oihal eta hobi,
eta beti errehabilitazio saio.

Hor egarria asetzen da,
edallontzi bat ur zuriz ase ere.

EGIPTOAK

Gaur lautasunetik altxatutako erliebean barruratu naiz,
baita ere zerua harlauza ideala izan daitekeela pentsatuz
maitekiro induskatzen nauen gainazalean
edota garagardo egile batek zorionaren ilusioa
galbahetzen duen bezala
azpikode bateko musuan.
Hodei tektonikoaren gisara hedatutako
horma-hitz eta horma-irudian barruratu naiz,
baita goitik behera geldiarazitako
ur-jauziaren mututasunean ere.

Gaur zutabeetako loto-kalizetatik edandako
denborarik gabeko urdinaren eskala infinituan barruratu naiz,
bihotza edo lumaren arteko dilema bezala
bestelako eztabaidak planteatzen dituen balantzan
eta baita “kutxatila”, “ur ontzi” eta “hipogeo” hitzek
daramatzaten bi zentzuen arteko ezkontzetan ere.

Jadanik hieroglifikoki isiltzen ikasi dut,
ikasi Udjat begiak petroglifoaren hondotik
zaintzen didan begirada baxuerliebeki pintatzen
ikusmen angeluekin praktikatzen dudan heinean,
ikasi papiroen eta bertso-papieren artean ibiltzen
facebooketik zintzilikatutako orrialdeen eta
eskriben taulatxoan artean egongo bainintzan.

Jadanik egokituta daukat begitartera
igeltsuz gogortutako lihozko maskara
Path jainkoa dela medio
eta txertatuta bihotzean arkeologia indusketak
bakardadearen jainkosari esker.

Hezetasuna neureganatuta daukat
ingurua moldatu eta eraberritu ahal izateko
eta hitzak ibitik sarriago igaro daitezen saiatzeko
Tefnut jainkosaren laguntzaz,
neureganatuta ibisaren jarrera
(kosta ahala kosta eta dena dela
paduraren erdian zutik dirauena).

GARRAIATZEAREN ABANTAILAK

Garraiatzea surrealismo errealista praktikatzea da
periskopio-begirada lantzea
eta birmoldaketa lanei ekiten jarraitzea.

Garraiatzea bukatu gabe gelditu den xake partidan
lorratz estimagarria uztearen sinonimoa da,
sustraiak edonoren begiradan botatzeko
ahalmena daukatelako
zuhaitzak landarerik nomadenak direla
adierazteko modua.

BULEGOAK KOORDENATU-ARDATZETAN BEZALA

Hor daude bakarrik
kotoia harkaitz gainean nola:
gestu mugiezin
tentsioan den tendoi.

Hor daude aingeru erori bezain funtzional
patroira moztutako besteen ametsekin.
Ezpainak murmurikatuz bezala mugitzen dituzten
testuingurutik kanpoko maletak daramatzate
eta iraupen-eskiaren lorratzak uzten dituzte.

Baldintza eta egoera desberdinen postontzian
kokatzen dira,
esaldien kale pribatuetan
deialdirik gabeko erantzunetan
orbita eliptikoz albaindutako espazioetan.

Harribitxiak arbastatzen dabilta
izotz plaken eta eguzki izpien artean,
kristalomantzian.
Unearen elektrolisitik edaten dute.

Egun flaskoratuak eta
saio-hodietan dantza egiten duten flageloak dira,
gaueko penduluak
txori dodekafonikoak.

Denbora amaigabea
eta “in vitro” bakardadean diraute
(arraintasun horretan).